

DIRU SARRERAK

Enpresa bakoitzak garatzea bilatzen du poliki-poliki eta horretarako oso beharrezkoa da diru-sarrera batzuk edukitzea, bestela ezingo dugu gure ideia eta enpresa aurrera atera. Baina diru-sarrerak edukitzeko kostuak eduki behar ditugu eta garrantzitsua da lortutako dirua gastatutakoa baina handiagoa izatea posible izateko. Taula honetan ikusi ahal dugu hilabete bakoitzean ditugun kostuak.

KOSTUAK	KANTITATEA	DIRU KANTITATEA
Erositako materiala	30kg	140€
Lokala	1	600€
UNICEF-i emandako %	Produktu bakoitzaren (7%)	190€
Soldatak	3	4500€
Elektrizitatea	Fijoa	63€
Publizitatea	Online, kaletik...	48€
GUZTIRA		5541€



Taula honetan ikusi ahal dugun bezala, gure kostuak hilabeteko 5541€-koa da. Gurea bezalako enpresa batentzako oso kostu handiak dira hauek, baina kostu hauetatik batzuk gure salmentak gora egitea lagunduko digu: Publizitatea eta UNICEF-i emandako laguntzak.

Diru-sarrerak modu anitzean lortzeko aukera asko dauden arren, guk normalean erabiltzen den berdina erabiliko dugu, hau da, aktiboen salmenta. Guk erositako berrerabilitako materialez egindako produktuak dendan salgai jarriko ditugu eta

behar dituenak etorri eta hauek erosi egingo ditu, etxera edo nahi duten lekura eramane eta erabilera bat emango diete.



Dirua bi sarrera motatik jaso ahal dugu, ordainketa bakarreko diru-sarrerak edota ordainketa errepikariak. Gure diru-sarrera ordainketa bakarrekoa izango da, erosleak dendan edo online bidez nahi duten produktua erosi, balio duen guztia baten ordaindu eta produktua lortuko dute. Baina prezioa beti finkoa izango da, hau da, prezio-taula batean dauden beste prezio-ezarpen guztiak gaitzen dituen prezioa da.